

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Rocka ta urrezko komuna.

Bonberenea txaranga.
Bonberenea ekintzak.
Iraupena: 41'14".
13,50 euro.

Betiko rock kantuek txarangaren iragazkiak aberastuta

TOLOSAKO BONBERENEA gaztetxeko ekimenek zur eta lur uzten gaituzte lortzen dituzten emaitzekin eta duten irudimenarekin; beste horrenbeste gertatu zaigu gaztetxe horretan sortu eta garatutako txarangarekin. Nork esango luke txaranga batena denboraldiko disko kuttuna bihurtuko litzatekeenik? Musikari gazte hauek etxean, tabernetan, txosnetan zein gaztetxean urteetan entzundako rock kantu ezagunenen

artean aukeraketa egin eta "txarangatu" egin dituzte. Hala, Ramones, Piperrak, RIP, La Polla, The Ventures, Mano Negra eta Su Ta Gar bertsionatu dituzte, besteak beste. Hitzak falta dira, jakina, baina kantuen esentzia hor dago eta oso erraz antzematen da zer kantu den, hori bai, bestelako ñabardurekin. Horrez gain, Balkanetako taldeei omenaldia eta kantu bana ere batu dituzte bigarren diskoan.

Balti - Bonberenea Txaranga

«Bonberenearen oinarria rocka da, eta hortik abiatuta egin genuen txarangaren apustua»

Noiz sortu zenuten txaranga?

Orain dela sei urte sortu genuen. Ideia Bonbereneako urtemugaren bazkarian piztu zitzaigun. Tolosan txarangaren tradizio handia dago eta gutako batzuk musika eskolan genbiltzan. Hala, musikari gazte batzuk batu eta hurrengo urtemugan kalejira egin genuen 15 bat lagunek. Helburua zen giroa alaitzea eta herrian gaztetxearekiko arreta deitzea.

Gerora asko handitu da txaranga, ezta?

2003. urtetik ekitaldi gehiagotan esku hartu dugu, eta horrek jende asko batu arazi du. Zailena izan zen San Juanetako koadrila egunean musikariak batzea, gehienak elkarrekin txarangekin irteten zirelako. Horrekin batera, Deabruak Teila-tuetan taldeak idatzitako *Bonberenea* kantua moldatzen hasi ginen. Sasoi horretan asko indartu zen taldea eta gaur egun 30 bat kide gara.

Zerk bereizten du Bonbereneakoa beste txaranga batzuegandik, gaztetasunak?

Bai, batez ere gazteek osatzen duten txaranga dela. Gehienok 27 bat urte ditugu eta gazteek 15-16

urte. Horrek jai desberdinetara joateko mugatzen gaitu, baina moldatzen gara.

Lehenengo diskoa txarangaren ohiko kantuekin egin zenuten, baina bigarrena egiteko rock kantuetatik tiratu duzue...

Bai. Lehenengo diskoa kaleratu ostean, pentsatu genuen hurrengoan zerbait desberdina egin behar genuela. Hala, Bonberenearen oinarria rocka denez hortik egin genuen apustua; hori bai, saiatu gara jende gehienak ezagu-

tzen dituen kantuak interpreta-tzen.

Oharkabean Elektrotuna edo Orkresta Nazionalari konpetentzia egiteko moduan zaudete...

Baliteke, baina ez da inola ere ezgure helburua. Egia da jendeak oso harrera ona egin digula, batez ere eskaintza desberdina delako. Aipatu beharra dago diskoaz gain, liburu bat eta DVD bat ere kaleratu ditugula, eta bertan disko honetako kantu guztien partiturak sartu ditugu beste talde batzuek ere jo ditzaten. ■

